



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSA OHARRA

**Bizkaiko kontuen aurreko zuzenketa-eske parzialen eztabaidarako
lehenengo jardunaldia, 2,62 milioi euroko balioa daukien lau
aurrekontu eskariren onespenagaz itxi da**

Bilbon, 2013ko abenduaren 16an.

2014ko Bizkaiko Aurrekontuen Proiektuak izapide barria gainditu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. 2014ko Bizkaiko kontu publikoen aurrean aurkeztutako 35 zuzenketa eske parzial eztabaidatu dira. Zuzenketa-eske horrek Lehendakaritza, Kultura, Nekazaritza eta Ingurumen Foru sailen aurrekontuei aurkeztu jakez. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bilbon daukien egoitzan egindako Ekonomia eta Ogasuneko lau komisinoak bukatu eta gero, departamentu horreetako aurrekontu programak onartu dira. Bozketa guztiak emaitza berbera izan dabe: Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeko ordezkarien aldeko 6 boto; 4 abstentzino (PSE-EE-ren bi eta PP-ren beste bi); eta kontrako 3 boto (EH Bildu). Azken erespenak hiru aldaketa sartuko ditu Kulturako kontuetan eta bat Ingurumenekoan. Guztien kopurua 2,62 milioi eurokoa izango da. Aldaketa horreetako bi EAJ-PNV taldeak proponidutako aldaketak dira, PP taldeagaz adostutako zuzenketa-eske transakzionalen bitartez, eta beste bi PSE-EE taldeak proponidutakoak, jeltzaleakaz adostu eta gero. Azken bi horrek Portugaleteko udalerriari buruzkoak dira. Hiru talde horrek EH Bilduk aurkeztutako 31 zuzenketa-eskeak baztertu ditue.

Aldaketa gehien –hiru– Kultura sailaren programen aurrekontuetan gertatu dira. Sail horretan, taldeek, 19 zuzenketa-eskeri buruzko eretxia emon dabe. Azkenean, batzordeak EAJ-PNV taldeak, popularrek hasieran aurkeztu dituen zuzenketa biren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eske transakzional bi onartu ditu. Horretako bati esker, beharginen gastuak 20.000 euro ingurutan handituko dira, Foru Liburutegiko ikasketa gelaren ordutegia zabaldu ahal izateko. Bestearen bitartez, 100.000 eurotan igongo da Algortako Portu Zaharra barriztetako azterlanak egitera bideratuta egoan 10.000 euroko hasierako partidea.

Halanda be, aldaketa garrantzitsuenak, diru-kopuruari jagokonez, Portugaleteko udalerriaren aldekoak izango dira. PSE-EE-k aurkeztu dauen zuzenketa-eskea EAJ-PNV eta PP taldeen laguntzagaz eta EH Bilduren kontrako botoagaz onartu da. Zuzenketa-eske horren bitartez, 500.000 euroko diru-laguntza gehituko jake Kultura Sailaren Aurrekontuei, Pando Aisiako kirol eremu barrira zuzentzeko. Ingurumen saileko kontuetan be egon dira aldaketak. Batzordeak argi berdea emon deutso Ezkerraldeko udalerri horretara zuzendutako 2 milioi euroko beste diru-laguntza bati, ingurumen azpiegituraren inbertsinoak egin ahal izateko. Kasu horretan EH Bildu abstenidu egin da. Sozialistek adierazo dabenez, ekimen bien helburua Portugaleten ekonomia eta enplegua indartzeko jarduketak bultzatzea da.

ALDAKETA BARIK LEHENDAKARITZAN ETA NEKAZARITZAN

Batzarretako jardunaldia, Lehendakaritzako foru sailaren aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa-eskeak eztabaidatu dituan batzordeagaz hasi da. Saio horretan, koalizino abertzaleak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

aurkeztutako 7 zuzenketa-eske eztabaидatu dira. Horreetako batak be ez dau Batzarretako “filtroa” gainditu. Gauza bera gertatu da Nekazaritzako foru sailaren aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa-eskeak eztabaидatu dituan batzordean. EH Bildu taldeak planteautako zuzenketa biek emaitza berbera jaso dabe: EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen kontrako eretxia.

BIHAR, BESTE LAU SAIO

Aurrekontuaren aurrean jarritako zuzenketa-eske parzialen Batzarretako izapidea bihar amaituko da. Bihar egingo diran lau saioetan, sailhoneen aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketak eztabaидatuko dira: Gizarte Ekintza (goizeko 09:00etan), Herri Lanak eta Garraioak (11:00etan), Ekonomia Sustatzeko Saila (12:00etan), eta Ogasuna eta Finantzak eta Foru Arauaren Testu Artikulatua (13:00etan).

Lurraldeko kontu publikoak 6.919 milioi eurokoak dira, aurtengo ekitaldian baino ehuneko 5,2 gehiago. Kontuen behin betiko onespina bariku honetan, abenduaren 20an, bukatuko da, seguruenez, Gernikako Batzar Etxean egingo dan osoko bilkuran. Bertan, Batzarretako taldeek Ekonomia eta Ogasuneko batzorde horreeta erreserbautako zuzenketa-eskeak aztertuko dira. Momentuz, EH Bilduk, batzordean onartu ez diran zuzenketa-eskeak erreserbau ditu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

La primera jornada de debate de las enmiendas parciales termina con la aprobación de cuatro modificaciones presupuestarias por importe de 2,62 millones

Bilbao, a 16 de diciembre de 2013.

El Proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2014 ha pasado hoy un nuevo trámite parlamentario en las Juntas Generales de Bizkaia. Se debatían 35 enmiendas parciales a las cuentas públicas de Bizkaia de 2014 de los departamentos forales de Presidencia, Cultura, Agricultura y Medio Ambiente. El final de las cuatro comisiones de Economía y Hacienda celebradas en la sede bilbaína del parlamento vizcaíno, ha deparado el visto bueno de los distintos programas presupuestarios de estos departamentos con el mismo resultado en las votaciones: 6 votos a favor de los representantes del Grupo Nacionalistas Vascos (PNV), 4 abstenciones (dos del PSE-EE y otros dos del PP) y 3 votos contrarios (EH Bildu). El dictamen final incorporará tres cambios en las cuentas de Cultura y uno en las de Medio Ambiente, por un importe total de 2,62 millones de euros. De éstas, dos se refieren a cambios propuestos por el PNV a través de sendas enmiendas transaccionales consensuadas con el PP, y otras dos del PSE, previo acuerdo con los jeltzales, que afectan al municipio de Portugalete. Estas tres formaciones han rechazado las 31 enmiendas presentadas por EH Bildu.

El mayor número de cambios –tres- se han producido en las consignaciones presupuestarias a los programas del departamento de Cultura, en donde los grupos se han pronunciado sobre un total de 19 enmiendas. La comisión ha aceptado finalmente dos enmiendas transaccionales presentadas por el PNV a sendas correcciones iniciales de los populares. Gracias a una de ellas, se incrementarán en 20.000 euros los gastos de personal para hacer frente a una ampliación del horario de la sala de estudio de la Biblioteca foral, y por medio de la otra, se aumentará en 100.000 euros la partida inicial de 10.000 euros para los estudios de rehabilitación del Puerto Viejo de Algorta.

Sin embargo, las modificaciones más cuantiosas beneficiarán al municipio de Portugalete. Una enmienda del PSE-EE aceptada por la comisión con el apoyo de PNV y PP, y el voto contrario de EH Bildu, servirá para incorporar una subvención de 500.000 euros con destino al nuevo complejo deportivo de Pando Aisia dentro de los presupuestos de Cultura. En donde también ha habido cambios ha sido en las cuentas de Medio Ambiente. La comisión ha dado luz verde a otra subvención de 2 millones de euros destinada también a este municipio de la Margen Izquierda para inversiones en infraestructuras medioambientales. Esta vez, EH Bildu se ha abstenido. Según los socialistas, ambas iniciativas pretenden impulsar actuaciones de reactivación económica y de empleo en la villa jarrillera.

SIN CAMBIOS EN PRESIDENCIA Y AGRICULTURA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

La jornada parlamentaria había comenzado con la comisión que debatía las enmiendas presentadas al presupuesto del área foral de Presidencia. En esta sesión, se han tratado un total de 7 enmiendas de la coalición abertzale. Ninguna de ellas ha pasado el “filtro” parlamentario. Lo mismo ha ocurrido en la comisión que discutía las enmiendas al área foral de Agricultura. Las dos correcciones que planteaba EH Bildu han decaído con el mismo resultado: el rechazo de PNV, PSE-EE y PP.

MAÑANA, OTRAS CUATRO SESIONES

El trámite parlamentario de las enmiendas parciales del proyecto presupuestario del Territorio de 2014 concluirá mañana con la celebración de otras cuatro sesiones, destinadas a modificar algún aspecto programático del presupuesto foral de Acción Social (a las 9.00 horas), Obras Públicas y Transportes (11.00 horas), Promoción Económica (12.00 horas), y Hacienda y Finanzas y del Texto Articulado de la Norma Foral (13.00 horas).

La aprobación definitiva de las cuentas públicas de Bizkaia, que ascienden a 6.919 millones de euros, un 5,2 por ciento más que en el presente ejercicio, finalizará probablemente este próximo viernes, 20 de diciembre, en un pleno en la Casa de Juntas de Gernika donde se analizarán las enmiendas reservadas por los grupos junteros en estas comisiones de Economía y Hacienda. De momento, EH Bildu ha reservado todas sus enmiendas rechazadas en comisión.